




## Esperimentatzen jarraitu!



Hizkuntza batetik bestera aldatzean **mantsoago izan ohi gara**, une bakoitzean aktiboago dagoen hizkuntza aldatzen joaten baita.

Esperimentu txiki hau zuk bakarrik zein zure familia eta lagunekin egin dezakezu.

Orrialde bakoitzeko irudiak izendatu behar dira. Nahi baduzu, orrialde bakoitza egiteko zenbat denbora behar izan duzun idatz dezakezu.

Zer da azkarrago: dena hizkuntza berean izendatzea ala batetik bestera aldatuz egitea?

Hizkuntza batetik bestera aldatzean, zailtasun-maila denontzat berdina al da?

Batzuentzat errazago al da euskaraz egitea gaztelaniaz baino?

